

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 4972

*AGINDUA, 2023ko urriaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 25eko Agindua, zeinaren bidez argitara ematen baita estatu mailako lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, EAEko kidego hauetako irakasle funtzionarioen artean: Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun eta irakasleak, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleak, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun eta irakasleak. Horrenbestez, baliogabetu egiten da Alfredo Lakuntza Vicariori esleitutako destinoa, eta destinoa ematen zaio Maria Teresa Guevara Ortiz de Pinedori.*

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 25eko Aginduaren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpeko Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleen eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta irakasleen kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena.

Esleipen horren aurka Maria Teresa Guevara Ortiz de Pinedok jarritako berraztertze errekurtsuaren aurrean, Hezkuntzako sailburuak, agindu bidez, errekurtsogilearen uzia baiestea ebatzi du, Alfredo Lakuntza Vicariori CEPA Paulo Freiren HHI (HHE Komunikazio ingelesaren arloa espezialitatea, 2. hizkuntza-eskakizuna, D hizkuntza) esleitutako destinoa indargabetuz eta Maria Teresa Guevara Ortiz de Pinedo errekurtsogileari destino hori emanez.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 25eko Aginduan jasotako lekualdatze-lehiaketaren behin betiko ebazpena aldatzea. Agindu horren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, hau da, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleen eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena. Hona hemen aldaketa:

- Indarrrik gabe uztea Alfredo Lakuntza Vicariori CEPA Paulo Freiren HHI esleitutako destinoa (HHE Komunikazio ingelesaren arloa espezialitatea, 2. hizkuntza-eskakizuna).
- Maria Teresa Guevara Ortiz de Pinedori behin betiko destinoa ematea CEPA Paulo Freiren HHI, HHE Komunikazio ingelesaren arloa espezialitatea, 2. hizkuntza-eskakizuna.

Bigarrena.– Alfredo Lakuntza Vicario behin-behineko destinoko egoeran geratzen da, administrazio-errekurtsuaren ebazpenaren bidez behin betiko destinoa galdu duelako, 2023ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2023ko azaroaren 3a, ostirala

Era berean, Hezkuntza Sailak deitutako lekualdatze-lehiaketetan parte hartzera behartuta dago, behin betiko destinoa lortu arte, herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidearekin.

Merezimenduen baremazioan, lehiatzen den ikastetxean behin betiko destinoa duen karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuei dagozkien puntuak zehazteko, lanpostua galdu duen ikastetxea hartuko da parte hartzen duen ikastetxetzat, eta ikastetxe horri gehituko zaizkio gerora edozein ikastetxetan behin-behinean emandako zerbitzuak. Halaber, jatorrizko ikastetxeari azken behin betiko zerbitzua eman aurreko ikastetxean behin betiko izaeraz emandako zerbitzuak metatzeko eskubidea izango du.

Behin betiko destinoa lortzen ez duen bitartean, ikasturte hasierako destinoak esleitzeko ekitaldietan parte hartu beharko du behin-behineko destinoa lortzeko.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 18an.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.